

Elurra, haitzak, zerua Wildspitze - 85

Julio Piñel Gárate

**Julio tiene 13 años
y llegará lejos**

Irakurtzen hasi duzun istorio hau, Bavarian hasten da. Bai, garagardoaren herrialdean. Bavariarentzat, garagardoa edatea ez da, askotan, egarriaren ondorioa. «tradi-zioa» edo ohitura jarraitzea baizik. Andechs izeneko monastegian, diotenez, munduko garagardorik onena egiten da. Saltxitxa ere, ez da falta. Bavariako hegoaldean (Bavariar alpeetan), Zugspitze mendia dago. Alemaniako garaiena. Eliza barrokoak ugariak dira Bavarian, lakuak bezala. Munich da Bavariako hiriburua. Gure kasuan, noski, ez zen falta izan, «Schuster» kirol-denda famatura «ikustalditxo» bat.

Igandea zen, 1985.ko Abuztua. Jatordua baino lehenago aukera izan zen; Wildspitze (3.772 m.) izan zen «agraziatua». Mendi hau, Tiroleko garaiena, Austriako bigarrena. Bi zatitan banatuko genuen bidaia: Igande arratsaldean mendiko aterperaino. Astelehenean, gailurre-raino.

Hilabete oso on bat genuen. Eguraldia «primeran». Diruz nahiko ondo. Mendigoizaleen kalitatea: bi on, bat «novato» (ni). Ez nintzen oso nerbiotsu, banekiela-ko, aukeraturiko mendia ez zela «K2» bat. Nire «punta», Alpeetan ere: «Le pain de Sucre» (3.210 m.) zen, Mont Visoren ondoan.

Ni, orain, Irailean, gauza batek harrizten nau: azkenengo momentuan aukeraturiko bidaia, bi eguneko, 150 km. distantzia zegoen mendia, beroa, karretera portuak, diru problemak, eta dena ondo irten zen. Beno, «dena», gauza bat esan behar da: nik, urdailarekin arazoak izan nituen goer-ran, oka eta guzti egin nuen. Horregatik, igoera ez zen izan oso erraza niretzat. Baina hau ez dut askotan aipatuko.

«Espedizioaren» kontara hasi behar dut. Hiru gizon gara; Txomin, Anton eta Julio, ni.

*Andechs:
otoitz egin
eta garagar doa.*



1go eguna

Munich-etik 50 Kmtara dagoen herri baten gaude. Dena prestatu eta jan eta gero, berebilan sartu eta bagoaz. Autopista hartzen dugu, Garmisch-eraino (karretera nazionala) hemendik 11 Kmtara, Austrian sartzen gara. Zugspitze mendiak harrizten gaitu. Tirol-a gurutzatzen dugu, karreteraz aldatzen goaz, azkenengoa, nahiko estua, mendi karretera. Kotxez ibilaldia, Vent izeneko herrian bukatzen da.

Vent herritik (1.890 m.), 2.356 m. tara igotzen duen teleaulkia hartzera goaz Zenbat eta gorago goazen, paisaia aldatzen doa, behean, pinuak, behiak, errekek, etxeak ikusten dira; goian, belarra, harriak eta elurra. Elurra, nahiko ugari ikusten da goian, ea ondo dagoen.

Teleaulkiarekin bidaia bukatzen ari da. Motxila ondo heldu, babestzailea igo eta... saltoa. 2.356 mtara gaude. Hemen hasten da ibilaldia.

Hasieran, bide hau aldapatsua da eta harritsuak agertzen da. Inork ez du ezer esaten, nahiko dugu paisai harrigarri honekin. Harritasun honek, niri behintzat, motxilaren pisua kentzen dit. Ordu laurden batez, bidea lauagoa da. Hemendik ikus dezakegu glaziare baten behelaldea, baina ez dago oso une. Elur zatiak agertzen doaz, baina ez da ezer. Bapatean, erreka bat agertzen zaigu. Honen indarrak, aste bat lehenago Austrian izandako uholdeak gogora arazten digu. Egur zubi txiki baten bidez, beste aldera pasatzen gara. Orain, bidea oso aldapatsua agertzen zaigu. Zigzag eran luzatzen da aterperaino. Ordu erdiko igoera izango dugu, behintzat.

Aterpera heldu gara. Honen altuera, 2.840 m-takoa da, eta izena, «Breslauer Hütte». Temperatura 11 °C ingurukoa. Ezagutzen ez dudun arazoiren batengandik, azkenengo metroetan, motxilaren pi-

sua, askoz nabarmenagoa egin zait. Hiru ohe eskatzen ditugu.

Hirurok, geure kontura, afaltzera goaz. Zopa bat ematen digute (edozein janaria ona da nik dudun gosearekin). Gero, pastela (Hau bai ona).

Zortzi t'erdia izango dira, ordu ona lo egiteko. Sakuetan sartu eta gero, saiatzten naiz txiste bat kontatzen, baina nire lagunen animoak ez doaz hortik. Gaba luzea egiten da.


2garren eguna

Goizeko bostak dira. Ez da ia ezer ikusten, baina, saiatu ondoren, geure gauzak batzen ditugu, eta beheko pisura eraman. Hurrengo pausua gosaria da. Jan gelan sartu gara, eta tokia aurkitu ondoren, jateko zerbait hartzera joaten gara. Gero, mendi jantziak eta tresnekin, kanpora irten gara.

Hasieran, zidor batetik goaz, Bidetxo hau, oso aldapatsua izan gabe, estua eta harritsu da. Glaziarea 20 minututara dago. Lehenengo momentuetan, lasaitasun haundi batekin igarotzen da dena, gero, lehen aipatu dudun bezala, mareoak eta sabel arazoak etortzen dira. Baina, hobe da hontaz ez hitzegitea.

Bagoaz glazietatik. Dena elurra da. Elurra, haitzak eta zerua. Zuria, beltza eta urdina. Haitz baten ondoan geratzen gara. Hemen, kranpoiak jutzen ditugu. Pioleten beharra ez da nagusia oraindik. Aztarnak eginda daude, hauen bidez aurrera goaz. Isiltasuna handia da, nahiko problemak ditut nik nire sabelarekin. Bapatean, 100 mtara, leporaino azkenengo zatia agertzen zaigu. Zenbait talde igotzen hasi dira, oso poliki. Nik, mendigozale hasberria naize-nez, ezin dut ulertu nola igo daitekeen halako aldapa bat. Nere barnerruntz esaten dut: «Hor goian, erru bat, eta kaputti!».

Haitz baten ondoan, 5 minututako atsedena izaten dugu, eta fruitu siku batzu jan.



Martxa berriro hasten da, aipaturiko azkenengo aldapara heltzen ari gara. Nagusiek diotenez, ez da sokaren beharrik izango. Ni, pioletarekin, beste bien artean joango naiz. Aztarnak segitzen, hasten da igoera. Ez dut beldurrik, nahiz eta hau izan nere lehen halako igoera, baina nagusien dependentzia osoan nago. Bota bat hemen, bota bat hor, badirudi dena ondo dihoala. Batzutan, beherantz begiratzen dut, eta erorketa baten pentsatzeak, igotzeko mila arrazoï ematen dizkit. Pixkanaka pixkanaka, leporaino heltzen ari gara. Azkenengo 5 metroak, harrien artean dira, eta elurra apur bat uzteak, indarberritu egiten nau. Lepotik, ikuspegi nagusia iparreruntz da. Lepo honen izena, «Mitterkar Jöch» (3.468 m.) da. Geure helburua, eskubirantz dago. Ezkerrean, Hint Brochkogel (3.635) izeneko mendia dugu. Geure aurrean, beste glaziare bat dago. Elurra, elurra eta elurra. Orain, ia 3.500 mtara gaudela, 300 m. altuera gehiago igo behar dugu. Ondo bagoaz, ordu bat pasa. Nere altuera «record»a pasa dudala pentsatzeak, animo gehiago ematen dit.


Soka jartzen dugu. Hirurak baturik gauda, horren bidez. Martxa berriro hasten da. Haseran, aldapa beheruntzko zati txiki bat dugu. Baina gero aldapa, aldapa bukaezina. Aztarnak nahiko ondo eginik daude gure aurrean. 3gn edo 4gn taldea izango gara, nahiko ondo goaz. Geure plana, nahiz eta nagusiki bide normaletik desarrolatu, azkenengo zatian, aldatu egiten da. Wildspitze mendiak, bi gailur ditu (3.772 m., eta 3.770 m.). Hauen arteko distantzia, 30 mtakoa izango da. Normalki, gailur

ezagunena egiten da bakarrik. Hau, biatariko txikiena da. Gure kasuan, beste gailur (kresta) batetik joango gara. Horrela, lehenengo, punta nagusira helduko gara, eta gero, bigarrenean, bide normaletik behera joateko.

Nekaturik nago, benetan. Gelditzeko eskatzen diet nire lagunei, baina beren animoak eta «gutxi falta da» esaerak, aurrera eramaten naute.

Bapatean, egia da, 3.772 minututara gaude, puntan! Akontezimientu hau os-

patzeko, argazki bat (zelako aurpegia edukiko dudan ez dut nahi ezta imajinatu ere). Hurrengo pausua, gurutzedun beste puntara joatea da. 10 minututan lortzen dugu. Hemen 10 minututako geldionetxo bat. Goizeko 9ak izango dira. Zerbait jaten dugu. Ni, lasaitasuna eta atsedena lortzen aritzen naiz, baina han goiko hotzak beheraldia hastera arazten gaitu. Orain, bide normaletik. Gainbehera goaz. Lehen zatia, nahiko inklinatua, 100 mtan luzatzen da, gailur eran. Hau bukatu eta gero glaziaren goaz. Beherantz segitzen dugu, pausu lasai batekin 20 minututan, lepoan gaude. Orain zati arriskutsuena dator. Aipaturiko aldapa hau, couloir oso zabal bat bezala, ez digu, nire harridurarako, arazo handirik ematen behera heltzeko. Pausua gogorki ematen, behean, lauagoa da. Hemendik, literalki, saltoak ematen, eta txirristaka, haitz batera heltzen gara. Kranpoiak eta soka kendu eta gero, nere askatasuna mila aldiz bidertzen da korrika, glaziarean uzten dugu, harrien arteko bide bat hartuz. Atsedena bat hartzen dugu, nik nire beharrak egiten ditut, eta 15 minututan, aterpean gaude. Hemen, zerbait edan eta geure gauzak batu ondoren, beherantz goaz. Elurra ez den edozein gauzaren gainean ibiltzea, poztasun iturria da niretzat. Belarren usaina somatzen hasten gara. Segituan, teleaulkia hartzeko prest gaude, atsedena baten ondoren, noski. Behean, gure gauzak batu, beste jantziak ipini, eta bagoaz. Innsbruck-tik, autopistaz, bidaia luzea, bero handia, gosea, nekaturik, egarria. Bavarian, Alemanian sartzen gara. Segituan, mendiak alde batera uzten ditugu, lurralde laun batera sartzeko. Agur mendiak, egunon saltxitxak.



Wildspitze hegoaldetik ez da tontorreko gurutzeta ikusten.

Foto: Txomin Uriarte